

## Piarres Lafitte-ren oroitzapen-solasetan

JOSEBA INTXAUSTI \*

*Aita Lafitte-ren omenez  
eta 1972an Uztaritzeko Seminarioko atetan  
jasotako ele pizgarriengatik eskerronez.*

**P**iarres Lafitte euskaltzain eta idazlea 1985ean hil zen. Hil aurretik Euskaltzaindiak eskaini zizkion omenezko lanetan eta hi-

londoko omenaldietan hainbat argibide eman da argitara, lapurtar ha-  
ren berri jakin nahi duenaren mesedetan. Hala ere, 1992aren honda-  
rreko oroitzapen-liburuarekin, testu-material handia gehitu zaio  
aurrekoari (1).

Eskuratu eta berehala irakurri ditut Serge Monier-ek Pierre Lafitte  
zenarekin izandako solasaldiak (2). Lafitte, bere osoan eta lainoki,  
aitortuta ageri zaigu orrialde ugari hauetan (622 or.). Transkribapen  
hutsak dira, eta errakuntza historikorik ez da falta, baina merezi du  
liburu honek berriemate zehatz bat.

Elkarrizketatzailearen asmoa «contribution à la mémoire des hom-  
mes» bezala definitu da liburuaren atzeko azalean. Berrikitan edo, gure  
artean ere indartuz doa «Ahozko Historia» eta argitalpen hau ere bi-  
de horretatik begiratzuz ulertu beharko litzateke, dituen aberastasun  
eta ezarritako eta aipatuko ditugun mugen barruan.

(1) Ik. EUSKALTZAINDIA (1983): *Piarres Lafitte-ri omenaldia*. Bilbo: Euskaltzain-  
dia, eta *Bulletin du Musée Basque*. n.º 113-114, 3.º et 4.º Trimestre, 1986. (Osorik Lafitte-ren  
omenez emana: gizon (Haritschelhar), gramatikari (Rebuschi), lexikografo (Oyharçá-  
bal), etnologo (Peillen), pentsalari (Charritton), kazetari (Oronos), literatur idazle (Or-  
pustan) eta kritikari (Haritschelhar) egindako lanak. Ondoko orrialdeetan lan hauek  
aipatuko ez badira ere, guztiz gogoan hartzekoak dira).

(2) MONIER, S. (1992): *Le Père Lafitte. Entretiens souvenirs avec*. Baiona/Donos-  
tia: Elkar.

(3) Ik. INTXAUSTI, J. (1991): *Historia baten bila*. Bergara: Irargi. Ahozko. Histo-  
riaren zeregin eta baliabideez: 76-90; metodologiaz: 179-195; Euskal Herriko zenbait  
argitalpen: 229-231.

\* Historiagile eta  
Euskaltzaindia-ko urgazlea.

Historiografiaren alor berri hau gero eta indartsuago dator ofizio-ko jendeen artean (3), eta euskal kulturaren historiari ere aplikatu nahi izan zaizkio Ahozko Historiaren lan-molde horiek (4); hala ere, dakidanez, orain artean gure kultur historiaz ez da sekula burutu eta argitara eman pertsonaia baten inguruan tamaina honetako langai-bilketarik. Alde horretatik, gure kulturari dagozkion lanetan liburu hau aurrera-pauso bat dela esan behar da.

Lafitte-k bizialdi luzea bete zuen (1901-1985) (5), eta gisa ezberdin anitzetako zeregin eta harremanak izan zituen. Ondorioz, «oroitzapen» hauek denetarik topa liteke: Filosofia eta Politika, Erljioa eta Hezkuntza, Linguistika eta Antropologia kulturala, jakitunaren buruhauste metodologikoak eta protagonistaren bizi-zertzelada pertsonalak, Ikastetxeetako etxe-barnetegiak eta ingurumen sozialeko gaztak... orotarik.

Oinarrizko irizpide batek gidatu ditu liburuaren prestatzaileak: hitzez hitzeko leialtasun osoa gorde nahi izan da magnetofoi bidez bildutakoa testu idatzitara pasatzean. Ez aurretik, ez oharretan, ez epilogo gisa eman da testuaren inolako azterketarik. Testu honek, beraz, lekukotasun-balioa du batez ere, eta horrelaxe ulertu behar da argitalpenaren asmoa: Lafitte-ren inguruan egin litekeen ahozko historilariaren lanerako jasota geratzen dira, ba, oinarrizko lehengaiok.

32 ordutan esandakoak daude bilduta liburuan (6). S. Monier eta P. Lafitte-ren arteko elkarrizketa hauek 1982ko urriaren 2tik 1984eko martxoaren 31 bitartean egin ziren, eta 50 kapitulutan eman da dena. Atal hauek, ordea, zabalera eta pisu guztiz ezberdinekoak dira.

Testamentu-kutsuko elkarrizketak direla ongi ikusten da: Lafitte-k bazituen esanda utzi nahi zituen albisteak eta bizi izandakoaz azken iritzi berriak. Komentzimendu bizi eta garbiekin mintzatzen da; badaki esandakoetako batzuk ez direla beti atseginak gertatuko, baina garbi dago —hola ikusten dut, behintzat— ez duela inor mindu nahi; hala ere, ez da beldur bakoitzari bere lekua izendatzeko eta bere buruaren kritika egiteko ere.

Heldutasun buruargi batek duen zuhurtziaz ari da iritziak eta usteak jaulkitzen. Bizitzak emandako jakitateak tamaina bateko baliorik bederen baduela jakinki, giza erlatibotasuna ahanzi gabe mintzo da. Izpiritu argi eta zentzua bezala ageri zaigu Lafitte solasaldi haue-  
tan, oroimenaren flakeziak inoiz edo bestetan traizio egin arren.

(3) Ik. INTXAUSTI, J. (1991): *Historia baten bila*. Bergara: Irargi. Ahozko. Historiaren zeregin eta baliabidez: 76-90; metodologiaz: 179-195; Euskal Herriko zenbait argitalpen: 229-231.

(4) Monier-en bilketa honetatik adibiderik hurbilena beharbada zera dugu: IBAR-ZABAL, E. (1979): *Koldo Mitxelena*. San Sebastián: Erein.

(5) LARRE, E. (1985): «Piarres Lafitte Joan zaiku (1901-1985)», in: *Euskera*. XXX, 1985, 697-704 or.

(6) Monier-ek bi datu kontrajarri ematen ditu: 30 ordu (6. or.) eta 32, liburuaren azkenean (613. or.).

## 1. AHOZKO HISTORIARAKO EKARPENA

## 2. NOLAKO LANGAIAK?

Orrialdeotan, batak bestera tarrapata batean eramaten zaitu: el-karrizketa biziak dira, oroimen biziko kontalari jatorrak duen era-karmena dute. Han-hemen ez da falta errepikapenen bat, baina, oro har, altxor ugaria gertatu da ordu haietan emandakoa. Pasadizo eta gertakariz beteta daude orrialdeak. Marra jarraitu batean ez, baizik zirkulu helikoidal batean doan kontaktak halako naturaltasun baten isuria du. Inoiz zerbait nahasia agertzen den kontaera, beti da bizia eta iradokiorra irakurlearentzat (argot-hiztegi herritarrik ere erabiliz).

### 3. OBRAREN JAKINGARRI BEHINENAK

Obraren laburpen xehatu osorik ez bada ere, azalpen zabal samar bat aurkeztu nahiko nuke hemen. Zenbait puntu nagusitara ekarriko dut, seihun orrialdetan banatuta —eta batzutan sakabanatuta— ageri dena.

#### Autorretratua

Elkarrizketa hauetan, beste inon baino zabal eta zehatzago, Lafitte-ren autorretratua eginda geratu zaigu: patxaraz eta umore onean egindako autorretratua. Lafitte gizona, bere gizabetean.

Piarres duanazain baten semea zen, Lapurdiko Luhuson jaioa, 1901ean. Ondoko bere bizilekuak errenkan aipatzen zaizkigu: Senpere, Uztaritze, Urruña, Itorrotze, Beloke, Baiona, Tolosa eta azkenik berriro Uztaritze. Ikasle-oporretan Arnegin egindako egonaldiak ere maitekiro gogoratuko ditu Lafittek (197-216).

Haur zela, umezurtz gertatu zen, aita-ama biak hilabeteren buruan galdu ondoren (19, 30, 47): amaren oroitzapena urrun geratuko zitzaion (19), aitarena hurbilago (19, 28-31). Hamaika urte zituela Belokeko Seminarioan sartu zen (Seminario baitzen orduan, eta ez Monastegi). Apaiz egin ondoren, Okzitaniako Tolosan egin zituen Letretako bere Lizentziatura-ikasketak: liburu honetan luzaz ari da 1924-26 eta 1927-28 urteetako Tolosako bi egonaldi haietaz (224-197). Ikusten da Lafitte-k gaztezaroko ikasle-garaiez eta lehen apaiz-urratsez oroitzapen bizia gorde zuela.

#### *Aparteko nortasuna*

Aparteko nortasun bitxia ikusi izan zitzaiola gogoratzen du Piarresek: «ils ont trouvé que j'étais bizarre», «mais je passais pour bizarre» (65, 69, 73), eta ingurukoengandik iritzi bera entzun ahal izango du, berandu arte halakorik zergatik zioten ulertu gabe (74, 187). Irakasleek ere gisa berean ikusten zuten, nonbait, Seminario Handiko nagusiak lehen harrerakoan adierazi zionez (186).

Mutikotako lagun-harremantean ere bere izen-deituren erabilera bitxia gogoratzen du: lagunek beti «Pierre Lafitte» deitzen omen zuten, izen-deiturak —biak— erabiliz (72-73). Ikasle zituenengandik jaso-

tako ezizenen bat ere aipatzen du: «Crassus» (295), eta borroka politikoan esan ziotenik: «le Rouge, le Noir» (348, ik. 465).

Osasun eskasekoa izaki, ez zuen erarik lagunen kirol-jardunetan parte hartzeko, eta lagun-harremanak gehiago eraman zituen ikasbideetatik. Ikasle bezala, programetatik landa ere, bere zaletasunei jarraiki, beste hainbat ikasketatan sartzeko joera izan zuen, txikitatik hasi eta Unibertsitatearaino (296). Haren ikas- eta ikerlanek aski frogatuta utzi dute zituen jakin-minen zabala (arte plastikoak, musika, hizkuntzak, filosofia, etnografia, historia, literatura, kazetaritza), eta orrialde hauetan ere agerian gelditzen da hori. Interes haien adibide adierazgarri eta bitxirik nahi balitz, Baionako epaitegian hamabihamahiru urterekin egiten zituen oporretako entzunaldi luzeak aipa litezke (83-87), gerora soziologiarako ere erakutsiko zuen ikusminaren aurrerakin gisa.

Errealitatearen behatzaile zorrotza izan zen Lafitte, eta gizakia, gizartea, herria, Eliza, Estatuak, erlijioak edo historia begi ohartzuz behatu zituen. Zentzu kritikoa galdu gabe, orrialde hauetan aurrera egin ahala, bere kritikamenaren betiko umore-eztena bigundu eta samurtu egin zitzaiola suma daiteke. Ikustekoa da, gaixotasuna, zahartza-roa eta, oro har, giza historia bera ere zein lehunkiro arakatzen dituen. Badago liburuan orrialde antologikoa iruditu zaidanen bat ere: Albert Léon itsuarekin batera Tolosako karriketan egindako ikustaldia-rena (367-370).

Solas hauetan maitasun argiz betetako umore kritikoa da mintzatzeko dena: Lafitte-ren umore heldua, alegia, errealitatearen erlatibotasun maitakorra idoro duen umorea. Irribarre maitalez begiratzen du bere burua, eta ingurura, garairen bateko ospinkeriak ere autokritikatuz. Lafitte-ri, itxura guztiz, ez zitzaion barrua gexaldu: heldutasun umotu gordinak bizirik iraun zion azken uneetaraino.

Egitea zegokion kritika-lanaren askatasuna defendatzen du («Alors on sait très bien que moi je n'y vais pas avec le dos de la cuillère, comme on dit», 316), baina baita egindako gehiegikeriak autokritikatzen ere: «Aitortu behar da: arrunt gaiztoa nintzen nire kritikak aurkezteko moduan» (316), eta inguru sozialarekiko azken urteetako bere molde gizatiarragoa agertzen du: «ez dut batere gogorik garai bateko nire bitrioloizko eztabaidak berritzeko» (609 eta 610).

Hala ere, bere lan propioekiko argi mantentzen da, bere buruarekin apal eta eskakizunez betea eta egindako lanaz autoiritzi kritikoak emanez (448-449). Egindakoaren gain belaunaldi berriek zekartzaten lan-balioak bihotz beroz ederretsi zituen.

Dena den, Lafitte-k izpiritu libre baten askatasuna (319) azken egunak arte kuraiaz defendatu zuen, edozein erabilpen interesatutatik (606-608), eta askatasun haren irtenbide bakar bezala —zindoki eginda zituen hautapenen ondoren ere: apaiza, euskaltzalea, etab.—, hautabideak irekita ikusi nahi zituen. Euskaltzaleen munduan ere halaxe nahi zuen jokatu, eta ohartuta zegoen hautetsitako burubideak zein ondorio zituen bere ingurumenean (605-606).

Libertate pertsonala ekonomia pobre batean, harreman sozial za-

baletan (353) eta umore nekaezin batean defendatu zuela esango nuke, agintedunei ere pentsatzen zuena lasaiki adieraziz (492). Liburuan zehar, ehundaka unetan egiten zaio umoreari leku, batzuetan inguruak berak berez lekarkeen umore-puntta fina ekarriz, besteetan norbere altxorretik iruzkinak eginez. Horrelako adibide bat Narbaitz euskal idazle eta Bikario Jeneralari eliz buletinetik hartutako hau da (417).

*Décidément, voici, dernières nouvelles, le 27 Avril 1940. Les Allemands ont pénétré en Hollande, et le même jour, Pierre Lafitte, professeur au Petit Séminaire d'Ustaritz, a été pris «Bon pour le service armé». Décidément les événement se précipitent.*

Gerrako ezbehar, irakas-lan edo teknika-arazoetan (423-327), nahiz alemanen erasoeko 1940ko hondamendi eta erretirada armatua kontatzean, iribarrez dihardu Lafitte-k: «Eh bien nous sommes repartis pour le Sud. Nous sommes arrivés *coureusement* jusqu'à Périgueux» (430. Azpm. nirea).

Eguneroko bizitza arruntera gatzela, Lafitte-ren egunak ez ziren gainerakoon antzekoak, azken urteetan bederen. Haren ordutegiak, bi egunaldi zituen, egunezkoa eta gauezkoa, loaldiak oso denbora gutxi hartzen baitzion. Egunez ikasketa-lana, lagunartea, harremanak eta idazketa; gauez, berriz, otoitza eta bere bizitza erlijiosoa. Lo-orduak, goizeko 3etatik 7etara ematen zituen (902-603).

### *Hezkuntza eta auto-heziketa*

Gizaki heldua, hezkuntza eta bizitza luze baten fruitua izan ohi da; Lafitte-ren kasuan ere, hezkuntza eta auto-heziketa saiatuaren emaitza izan zen hark oratutako nortasuna.

Umetatik izan zen Piarres oso jakin-mina (36), eta ikasitakoaz oroi-men onekoa (37). Azken zahartzaroan, Lafitte-k banan banan gogoratzen ditu bere hezitzaile eta irakasle izanak, eta bakoitzari zor zizkionak: Itorrotzeko errientsa, Seminarioko irakasleak (Saint Pierre, Mathieu, Dagerre...), Tolosako maisuak (37-38, 222-224, 240-247).

Ikasle lagunekin ere harreman biziak izan zituen Piarres-ek, bere logelaren inguruan lagunarte hurbila bilduz, bai Seminarioan eta baita Tolosako Institutuan ere: hemengo taldea G-E-P deitu zuten (berez, «Groupe des Etudiants Pyrénéens», eta itzulpen gaiztoz: «Les Gueules en Pente»). Azpimarratzekoak dira ikaskide biarnesekin bizi izandako lehiak eta kidetasunak (190-195, 255-258). Geroagoko irakas-lanetan ere, Lafitte-ren gela biltoki bilakatu zen Uztaritzen, ikasleentzat bezala, euskaltzaleentzat ere.

Irakurketa handiko ikaslea izan zen Lafitte, bere interesak ere mota biziki ezberdinetakoak izan baitziren, denboraren harian Mathieu, Saint Pierre eta Lhande-ren eraginez, bere lan mugatuagoetara bilduz joan zen arte. Horrela, bere heldutasunean hainbat alor egokiro lantzeko prestatu ahal izan zen ikasturteetan zehar, bai kultur lanetarako eta orobat eliz eginkizunetarako.

*Gizartean elizgizon, Elizaren herritar*

Lafitte-k osorik, baina libertatez, hautatu eta bizi izan zuen bere elizgizon-egoera. Piarres mutikoak —ingurukoen iritziaren kontra— Seminariorako bidea hartu nahi izan zuen, eta bere kabuz eman zituen, gainera, horretarako pausoak (57-63). Liburuaren azken kapituluetan ikus daiteke, Lafitte-k bere elizartasuna nola ikusten zuen azken urteetan (567-573) (7).

Errepublika laikoaren eta Elizaren arteko etenak eta etsaigoak ondorio praktiko deserosorik ere izan zuten Piarres-en lehen urteetan, anaia Alfred-i duanazain-haurra izaki ematen zitzaion beka berak Seminaria sartu zelako galtzean (22-23).

Eliz Erakundearekiko leialtasuna, ordea, askatasun kritiko nabari batekin ulertu zuen beti. Askotan, beste elizgizonek maite ez zituzten alboratasunezko egitekoak hartuz (Tolosako langile-auzoetako lana edo Uztaritzeko Udaletxearekin lehian sortutako bulegoa, adibidez) eta, behar zenetan, kritikari ere bere lekua emanez. Bulegoan, Suprefetaren aginduz, jarri nahi izan zizkieten mikroak zirela eta, Vincent Apezpikuarekin izandako elkarrizketa da kasurik nabarmenena (264, 321-325; 492).

Oro har, apezpikuekin izandako harremanak espreski deskribatzen dira kapitulu batean (487-498), eta badu interesik hierarkiarekiko eta zenbait ohitura edo joka-molde eliztarrekiko erakusten duen jarre-rak ezagutzeko. Jakina denez, lehenengo proposamenean izendapena ukatu bazioten ere, bigarrenean (1961) Lafitte ohorezko kalonjetarako izendatua izan zen. Ohoreak ohore, Erakundearekiko zuhurtzia eta jarrera libreak laburki agerian uzten ditu orrialde haue-tan (498), izan ere elizgizon honek mundua bere zabalean begiratzen baitzuen beti.

*Gizarte osora irekia*

Lafitte zinez ingurura eta gizartera irekitako hiritarra zen, pentsa-moldez eta jitez, are gehiago, bestalde, urteak iragaitean. Gisa aniz-tzetan ageri da Lafitteren izpiritu-irekitasun hau.

Lehenik natura bera, izadia. Apaizgai gazte zela, bere oporrak iza-dia ezagutzen pasatu ohi zituen: landareak bildu, belar-bildumak osa-tu, bakoitzarekiko albiste zientifikoak jaso... (567). Osasun eskasagatik, kiroletan deus handirik egiterik izan ez arren, txikitatik maite izan zuen izadia eta *scout*-taldeekin mendizale bilakatu zen ge-rora; horri esker, osasunak hobera egin zion, gainera (381-398, 407-415).

Polemika-zalea izan zela behin eta berriz aitortzen du, eta, beraz, aurkagrina makurra bere barne bihurrian zeramala. Baina, herritar-kidetan taldekatuta biltzen ziren ikasleen artean bera euskaldunen bu-ru izan arren, biarnes eta kaskoinekin zubirik onenak ere berak eraiki zitzakeen (188-190): aipatu dugun Tolosako piriniotarren elkarte da

(7) Ik. *Bulletin* aipatuan Charrition-en lana, eta: VILLASANTE, L. (1983): «Idek eta zabal gogo-bihotzak», in: EUSKALZAINDIA (1983): Aip. lib., 655-665.

horren lekuko ona. Bere burubide hau lagun, kaskoinek euskal kantak nola ikasi ohi zizkioten gogoratzen digu (448).

Ideologia eta erakundeen gainera gizakion arteko hurbiltasun jatorraz ongi jabetu zen: kazetari komunista ustezko «arerio» batekin izan zuen topaketa deskribatzean eskaintzen duen autokritika irakurtzekoa da (609-611). Elkar ezagutu ondoren, honela ematen du lau urte luzetan izandako prentsa-liskarren azken argibidea:

*Parce que moi j'étais une petite brute, il faut bien l'admettre. Moi je ne cherchais pas à savoir ce qu'il était le type (610).*

Inoren larrupean noraino sar zitekeen jakiteko, adibide bitxi bat mutikoaren aitak berak eskatuta judu-erlijioan hezi behar izan zuen haur juduaren historia da (543-546). Jakin zuen ideologi eta erakunde-mugetatik at lan egiten eta giza balioak ikusten.

Izan ere, beste bidetatik ibiliz, susmo itsuek dakarten makurkeria ezagutu baitzuen bere aurka ere. Aitortuta zuen euskaltzaletasunagatik, Lafitte susmagarria gertatu zitzaion zenbait jenderi, apaiz arteko elkarrizketa xarmant bat errepikatuz kontatzen digun bezala (494).

Lafitte-ren irekitasun ideologikoez, ordea, ez zuten esan nahi edozein motatako irenismo noraezekorik. Eskuarrean, bere manupean eraman behar zituenak gidatzeko, zerizkion neurririk zuhurrenak hartu ohi zituen. *Aintzina* (1934) aurrera ateratzeko eman zituen pausoak ekar litezke hona: «j'ai commencé par ramasser une documentation importante» (357-358). Izan ere, alde aurretik kamustu nahi izaten zituen inoiz beharbada ager zitezkeen ezpata zorrotzak (498).

Azeri zahar baina samurra bilakatu zen Piarres: dena behar izan zuen Euskal Herriaren eta euskararen alde ihardun zuen bezala iharduteko.

### **Iharduera aipagarrienak**

Lafitte-ren iharduera nagusiak ere elkarrizketa luzetan zabaltzen dira liburu honetan. Bizpahiru puntutan bilduko dugu horien albisteak: euskalgintza/euskaltzaletasuna, hezkuntz lanak, gizarte eta politikarekiko ardura, kultura eta euskalgintza.

#### *Euskaldun euskaltzalea*

Lafitte «berandu» euskaltzaletutako gaztea izan zen. Haren «euskaldun-berritasunaz» esandakoez elkarrizketa hauetan guztiz argituta geratzen zaizkigu; pausoz pauso jakin dezakegu, euskara noiz eta nola ikasi zuen, eta non eta zergatik euskaltzaletu eta euskaldun(berri)tu zen.

Lafitte-k lehen haurtzaroan (Senpere, Urruña eta Uztaritzen) euskara ikasi zuen, baita Itorrotzera joatean —familiarrean frantsesa eta biarresa nagusi izanik (izebak ez zekien ez frantsesa, ez euskara, biarresa baizik)— haurra atzeratu egin zen bere euskararen, zuberuera zaila

gertatzen zitzaiolako, euskara haundi-maundian ulertu eta eskolan irakurketaren batera deitua ere izan arren. Katexima ere frantsesez ikasi zuen, eta irakurtzaletu zenean, frantsesari heldu ahal izan zion berriro ere (39-40, 159).

Hortaz, Seminaria joatean (1912), erabilpenik gabeko euskara gutziz elbarri batekin iritsi zen; Seminario Tipiak deus gutxi lagundu zion hizkuntz egoera hura hobetzen. Aldakuntza, Handira pasatzean gertatuko da, Jean Saint Pierre irakasleak, apezpiku izango zenak, eraginda: «Datorren urtean herri-hizkuntzaz sermoi bat egin beharrean izango zara. Nola egingo duzu, biarnesez ala euskaraz?», galdetu zion Saint Pierre-k. Bere buruari hiztegi-azterketa bat egin eta 200 euskal hitz ezagun zerrendatu ondoren, ondorio honetara iritsi zen Piarres (160):

*«J'en sais beaucoup plus que je ne pensais. Je ne sais pas m'en servir mais j'ai des mots quand même». Bon. Je me suis dit: «En somme, pourquoi pas?». Alors, le jour du 1<sup>er</sup> de l'an 1920, le 1<sup>er</sup> janvier, je suis allé trouver St. Pierre, pour lui souhaiter la bonne année.*

Handik aurrerako euskalduntzea, Piarres-en hobe-grina ezaguturik, segurtatuta zegoela esan zitekeen: Saint Pierre-k ez zuen eztenka sobera ibili beharrik. Laster ikusi zitzaion noraino hel zitekeen apaizgaiari. Hurrengo une erabakiorra, Tolosara joatean gertatu zen: Filosofiari ekin zion, Apezpikuaren iritzia edo jarraiki, Mathieu eta Saint Pierre berriro beren gutunekin etorri zitzaizkion arte: Euskal Herriak hizkuntzalari eta gramatikari gotor bat behar zuela adierazi zioten, eta «ni nintzen horretarako deitua» esan behar izan zion mutilak bere buruari, Saint Pierre-ren euskarazko eskutitz adiskidea irakurtzean (231-233):

- *Mais on vous attendait au Pays Basque!*
- Vous pensez! Là, là il m'a eu, oui.
- *Tout le pays vous attendait.*
- Oui, tout le pays... C'est rigolo hein!

Handik aitzina (Aita Lhande ere tartean zela), ikasketa teorikoak, herrietako bilketak, azterketa gramatikalak eta euskal literaturaren irakurketa osoa (1920rainokoa bederen) izango dira Piarres Lafitte-ren euskal eginkizunik nagusienak. Euskal literaturaren historiak dozenaka lan monografiko burutu zituen, beti ere azken xedetzat gutxienez Iparraldeko literaturaren historia orokorra egitea hartuta. Obra hori burutu ezaren nahigabea erakusten digu elkarrizketetan Lafitte-k bere azken solasean (612).

1970. etako hizkuntza estandarri buruzko eztabaida oroitzuz, euskararen batasunaz hainbat gogoeta egingo du, eta liburu honetan ere bada horrelakorik (505, 588, 600), baina azken irtenbide jatorrena zein izan litekeen nahi bezain argi ikusi gabe. 80'etan alderantziz, Euskaltzaindiarekin zerikusia duten bi unetan, bederen, pozik agerten zaigu gizona: Iker Saileko omenaldi-liburua eskaini zitzaioneko gogoratzean (301) eta Gramatika-Batzordearen lan-partaidetza aipa-



tzean: «tous les 15 jours nous avons réunion, il y a 21 types qui travaillent la grammaire avec moi, je crois que ça, ça n'est pas perdu quand même» (612).

Euskal Herriko hizkuntz politikaz apenas daukagun ezer orrialde hauetan, bi ohar labur baizik: XVII.eko frantsesak bere *corpus* praktikoa izandako hiztegi-murrizketa etorkizuneko euskararako iradokizun egokia ote den galdetzen dio bere buruari (hiztegia eta aditzaren baso izugarria aipatzen ditu behin eta berriz) (ik. 458-460), eta *status*-arekiko, euskal Estatu batek euskara bideratzeko hikuntz politikan izan ditzakeen muga eta baliabideez ere badihardu (461). Bestalde, garbi dago Euskal Herriak gerora eleaniztuna izan beharko duela (590).

Bizitzarekiko beste alor anitzetan bezalatsu, hizkuntzarenean ere errealtatearen historikotasunaren zentzu ernea erakusten du Lafitte-k: alde horretatik, gramatikari arauemaileen sareetatik ihes egin nahiko lukeela ikusten da (457). Mendeetan zehar, hiztegia ezezik aditza eta sintaxia ere biziki aldatu zaizkio euskarari. Dena den, tamalez, aro batzuetarako bereziki, hizkuntz iraganaren gure ezagutza murrizta dela azpimarratzen du (514-515).

### *Hezitzailea*

Dakigunez, Lafitte-ren kezka ez ziren hizkuntzetara bakarrik mugatu; izan zuen beste alor maiterik ere. Horietan bat, eta bere-berea, hezkuntzarena: Lafitte bokazioz zinezko hezitzailea izan zen, eta bizitza osoan zehar hezkuntzara emana, hasi Arnegiko urteetatik eta Uztaritzeko azken urteetaraino, Tolosan langile-auzoetan (259) eta Angeluko egonaldietan egindakoak ahanzi gabe (571).

Hezitzailearen historia horretan eboluziorik ere ezagutu zuen bere trebetasunean: Arnegin haur eta gaztetxoekin egindako lanerako zuen orduko gaitasuna gerora galduta zuela aitortzen du, baina gazte helduagoekin beti mantendu duela harreman erraz eta gizatiarra, bere buruari benetako «aitatasun» bat aitortzeraino (565). Iratzeder olerkariak ederki eman digu hezitzaile haren bere oroitzapen poetikoa (8).

Gizakiaren barne-hedapena eta balaunarteko ondare-katea segurtatzea bakoitzaren sormena garatzeko bide bezala ikusi zituen. Lafitte-ren bizitzan balio-pisurik handienetakoa izan zuen hezkuntz lanak, ikerkuntzak edo Euskal Herriko beste bere kultur gidaritzak hainbeste esango nuke, euskaltzaletasuna ere beste heziketa-zeregin bezala ere defini zezakeen arren.

Oroitzapen hauetan gazteekin egindako lanak leku handia du. Joe-raz, nahiago zuen Piarres-ek bide propio berriak asmatu (382-384), baina aurrera egin ahala jakin zuen lehendik zeuden bestelako esperientziak ere bereganatzen: eskauten bidetik hogeiterteko lana burutu zuen, 1936tik 1956raino (386-397) eta JEC bezalako mugimenduari ere egin zion lekuri.

(8) EUSKALTZAINDIA (1983): Aip. lib., 31-33: «Entzun!».

Baina, badirudi, taldekako hezitzaile-lana baino maiteago zuela Lafitte-k banakako harreman pertsonala. Elizbarrutian eman zitzaion betekizunak (bizitza heldu gutzia Uztaritzeko Seminario irekian eman zuen) eta gazteekiko beti erakutsi zuen itxaropenak zeramaten («Go-ra gazteak»: 301), noski, hezkuntzari halako tokia eskaintzera.

Seminario-barnean harreman pertsonal libreetan egindako lana harroki gogoratzen zuen Lafitte-k, lan hori inoiz irakasle lagunen arteko desadostasunen artean eraman behar izan bazuen ere (306-310). Aitor-entzule ofiziala ez izan arren, gazteek maite izan zituzten irakasle eta hezitzaile honekin solasa eta barne-jaulkipena: ehun eta gehiago gazteren ardura zuzen eta pertsonala bere gain etorri zitzaion, gazteek berek halaxe eskatu ziotelako (310-312).

Harreman pertsonal hauetako eskarmentua jasoz, euskal haurrak eta bearnesak ezberdinak ikusten ditu hezkuntz premia eta moldeetan, eta batzuen eta besteen izaera eta jiteak alderatuz zera dio (397):

*Une pédagogie individualisée, oui. Maintenant je crois que l'autre est utile aussi, parce que il y a des gens qui ne vont jamais s'ouvrir. Par conséquent, ceux-là il faut de quelque manière arriver à les atteindre. Essayer au moins. On ne sait pas ce qui va sortir. Quelques fois, il y en a qui n'ont aucun besoin de cette pédagogie personnelle. Ils se débrouillent tous seuls, très bien. Avec les basques, en particulier, c'est extraordinaire. Ils n'aiment pas du tout la pédagogie personnelle. Non, chacun pour soi. — Mais c'est très dangereux. Parce que, quand ils ont de crises, ils n'en sortent pas. Ou bien, s'ils s'en sortent, ils sortent très forts. C'est vrai. Tandis que les petits gascons, béarnais etc. ce sont des courants d'air. Ils vous disent tout ce qui se passe par la tête. Plus qu'il n'en faut même.*

Euskaldunaren barnerakoitasunak kezkatuta zeukan Lafitte, eta teoria psikologikoak eta fenomeno sozialak elkarrekin lotuz bilatu nahi izan zien Lapurdiko suizidioei esplikabideren bat. (399-405). Komunikazioaren beharrik gordinenak itotzeraino barnera istean gertatzen ziren donibandarrak eta ezpeletar mutiko haien moldeko ezbeharrak (480-480). Trajedia latzak bizi izatea egokitu zitzaion Lafitte-ri, Uztaritzen eratu zen Lota ikastetxean.

Lotan nola-halako mutil koskorrak biltzen zituzten 1940.eko hamarkadan, eta Piarres-i eskatu zioten bertako apaiz-lanak eramatea: hamar urtetan ihardun zuen han (477). Esperientzia horren albiste zabal eman da liburuan (463-486). Izan ere, marjinazio-munduarekiko beti izan zuen Lafitte-k halako interes bat, eta Lotakoa izan zen, zalantzarik gabe, gizarte-arduretan zereginik gizatiar eta iraunkorra. Erabili zituzten metodo sozio-pedagogikoak badute garai haietarako interesik. Orain EKErentzat irabazi den etxeko istorioak ez ziren txanxtetakoak izan (ik. 471).

Ahal izan zuenean, Lafitte entseatu zen bere hezitzaile-mezua modu egitarautu batan ematen, garaian garaiko literatura pedagogiko kristau aitzinatuenaz baliaturik, sexu-heziketan ere garaiko ohiturak

gaindituz (557-558, 560, 563-564). Batez ere Seminarioko hazienekin egin ahal izan zuen lan hau, hogeiren bat urtetan (559). Bestalde, barnetegi hartatik aparte beti erakutsi izan zuen Lafitte-k gizarte osoa-rekiko bere arreta.

#### *Gizarte-arazoetan*

Tolosako Les Amidonniers auzoko lanek, Uztaritzeko ikastetxeetakoek nahiz bere bilaketa etnolinguistikoek gizarte-arazoez kontzientzia bizia izatera eramán zuten Piarres. Eremu oso ezberdinetan izan zituen, eta hartu, erantzukizunak: gazteak, emakumea, langile-mundua, etab. Euskal Herriko talde apartatuak ere ezagutu nahi izan zituen: ijitoak (83-88, 551-554), juduak (541-550). Kezka sozial hauek batzutan bere garaiei aurreratutako irtenbideak proposatzera ere eramán zuten: «Je suis partis trop tôt?» (357).

Euskal laborariekín Gerrate Handiaren kariaz egindako gehiegikeriak biziki sentitu zituen, eta hitz gogorrak ditu haiei egin zitzaíen bidegabekeria salatzeke (442-443):

*...la majorité des paysans était mobilisée. Ils étaient tous au front. Ils n'étaient pas dans les usines. On les a massacrés. Il y a qu'à voir les listes de morts du Pays Basque, à la campagne. Ils on été massacrés.*

Bere kazetari-luma salatazalea behin baino gehiagotan erabili zuen Lafittek gizarteko justizi arlo handietan bere hitza zabaltzeke, eta zapalduak defendatzeko. «Orduan [Tolosan zegoela] arazo feminista eta horrelakoak ikasten hasi nintzen. Eta orduan esan nion nire buruari, premiazkoa da beroriek defendatzea, boto-eskubidea, etab., soldaten berdintasuna eta antzeko arazo-pilo bat» (355).

1920.eko hamarkadan hasita Bordeleko *Le Carillon des Jeunes* aldizkari feministan bihotzez heldu zion lanari: «Pierrette Labbé» sinatzen omen zuen, idazlesa gisa. Mugimenduak aurrera ahala, Biltzar feministak eratu zituztenean, lehenengo gaixotu eta gero, desagertu egin behar izan zuen «Pierrette Labbé» bere emakumezkotasuna frogatzea zaila zuelako... (355). Hurrengo hamarkadako *Aintzina* euskal aldizkarian, berriro eman nahi izan zion lekuri emakumeari, lehenengo «Augusta Larralde» izenpean, eta ondoren emakumezko lankideak bilatuz (Jauregiberri andereñoa). Euskal historian eta tradizioan ere bilatu zituen, emakumearen aldeko bere mezua zuzeneske toke arrazoi eta aurrekinak (359).

*Le Carillon*-eko eragile lankidea neska judutar kristau sindikalista bat izan zuen (354, 541), eta ez da harritzekoa, bai judutarrak (esan dugu) eta bai sindikatuak bere arduren artean baitzeuden. Sindikatu kristauen zeregina eta kooperatibek langilegoari ekar diezaioketen askapen-bidea hurbiletik begiratu zituen; baina euskal erroak ere zainduz. Horretan ez zuen amore eman nahi (357):

*Mais aussi nous voulions basquiser tout ça. Nous aurions voulu avoir des Syndicats basques, des Coopératives basques, etc. Nous n'avons pas réussi, il faut bien dire la vérité.*

Politika, arazo sozialak baino urrunago geratu baldin bazitzaion ere, inguruko gertakariak aginduta, izan zuen zerikusirik mundu politikoarekin ere. Lafitte-rogen hiru gerrateren oroitzapenak daude: 1914.ekoarena, Espainiako Gerra Zibilarena (1936) eta 1939-1945etako Mundu-Gerratearena. Lehenengoarenak gazte-oroitzenetatik zetozkion, eta beste biek in personalki zerikusi zuzena izan zuen.

Espainiako gerrak, aspalditik zekarren euskal ardurari erantzuki, Hegoaldearen alde jardutera bultzatu zuen Lafitte. Liburuan kapitulu t'erdi edo eman zaio gaiari (327-348). Bi motatako zereginak izan zituen orduan Lafitte-k: gerrako bi aldekoen arteko elkarrizketa erraztea, eta ihesi zetozei eta haurrei bereziki, Imanol Intxaustiren laguntzaz baliatuz, aterpea eskaintzea; eliz agintarien aginduz aritzerik izan ez bazuen ere, agindurik gabeko oniritzi isila izan zuen bederen (328-329). Mola, Yagüe, Oviedoko Artzapezpikua, etab. tartean dira, eta Donostiako ebakuazioaren baldintzak nola elkarrizketatu ziren ere jakin liteke (338-340).

1940-1945.eko gerrateak ere —mobilizatu izan zen, eta gero alemanen okupazio-eremuan (Uztaritzen) gelditzea suertatu zitzaion— erresistentzi arazoetan parte hartzera eramanean izan zuen; zenbait kapitulu ezberdinetan banatzen dira orduko oroitzapenak: «La Guerre de 39-40» (417-435), «Résistance» (519-534) eta «Eugène Goyenette et la Résistance» (535-539) (9).

Mobilizazio-aldiaren ondoren (1940ko abuztua; 430), bi urtetako geldialdi baketsua izan zuen Lafitte-k Uztaritzen (519), harik eta ekin-tzarako deia jaso zuen arte, Erresistentziarentzat mobilizatuta baitzegoen, noski, lehendik gaztigatu ziotenaren arabera (431). Iheslariak muga atzeman zezaten, Uztaritzetik Arnegiraino sare bat eratu eta katea bizirik mantentzea (520-521), eta inguruetako armada alemanaren joanetorriak ezagutzea (521-525) izan ziren Lafitte-ren Erresistentziako zeregin nagusienak.

(9) Jada kapitulu honek albiste-xehetasun berriak sortu ditu. Lafitte-k esandakoaz (534) eta liburuaren berri ematean, L. Etchezaharreta-k idatzitakoari (*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-01-06), 11. or.) erantzunez: ORDOKI, K. (1993): «Eugène Goyhenetxe ez da inoiz Gestapokoa izan», in: *Euskaldunon Egunkaria*, 1993ko otsailak 28, 3. or. Ene ustez, 534. orrialdean esandakoa, ondoren Lafitte-k berak eta Ordoki-k esaten dituztenekin argitu behar da, bestalde, itxura guztiz, biok bat baitatuz. Komeni da hemen, Lafitte-ren pasarte hau jasotzea: «Alors lui [Goyhenetxe], il était là-bas [Bordeleko alemanen bulegoan], mais il était très gentil parce que, quand il savait qu'il y avait du danger pour certains types du pays ici, il les faisait prévenir. Il risquait sa peau. —Il menait un double jeu alors!— Oui. Mais c'est comme ça qu'il a réussi à me téléphoné pour me dire d'avertir Darricarrère qui habitait Ustaritz». Goyhenetxeren «bikoiztasuna», Erresistentziaren kontraespioitziatik ulertu behar da, Ordoki-ren lekukotasun koalifikatuaren arabera (Ordoki, «Gernika» Batailoiko Komandantea izan zen, Frantziako askapen-Armadan). Ik. [EUSKALDUNON EGUNKARIA]: «Senideek ukatu egin dute Lafittek Eugene Goyhenetxek esandakoa», in: *Euskaldunon Egunkaria*. 1993-III-20. 9. or. E. Goyhenetxe-ri buruzko lan jakingarri bat argitaratu emana dago jada: LARRONDE, J.-Cl. (1991): «Eugène Goyhenetxe, un militant basque dans les années 30», in: RIEV, XXXVI, n. 1, 1991, 79-160. Jakin dugunez, hurrengo hamarkadarako ere autore berak emanen du laster beste azterlan bat.

Bakea etorri zenetik, bere ohizko lanetara itzuli zen Piarres, eta gerra-politiken eguneroko liskarrak urrun samar geratu zitzaizkion. Bere politikaren funtsa definizio arrunt xumean eskaintzen digu: ez dago borroka armatuaren alde, federalista europazalea da, eta ez antifrantsesa, ez antiespainola, eta bakea nahi du; apaizgoari eusten dio, baina hizketaldi erlijioso aspegarritan galdu gabe: «Voilà mon programme. Très simple» (609).

### *Kulturaren eta euskalgintzan*

Euskal Herriaren kultura eta euskara izan dira, batez ere, Lafitte-ren bizitza osoa bete eta azken egunak arte iraun dutenak. Hainbat atalburu eta pasartetan eman dira alor horiekiko zertzeladak (10). 120ren bat orrialdetan ematen du liburuak euskaltzale eta euskal iker-tzailearen berri. Dagoeneko argitaratuta dago Lafitteren idazlanen zerrenda, osoa ez bada ere (11), eta autoreak berak bere lanei buruz esandakoak gogoratuko ditut hemen bakarrik.

Has gaitzen Lafitte-k gidatutako talde-argitalpenetatik: *Gure Herria* (1921), *Aintzina* (1934), *Herria* (1944). Jaio eta urte batzuren buruan *Gure Herria* zorretan itoa aurkitu zen, eta barne-antolamendua berritze bat egin beharra egon zen 1928an: handik gerraraino Lafitte-k hartu zuen haren zuzendaritza, Mathieu zorren ordaintzailak halaxe eskatuta (320). Lafitte-rentzat, aldizkari hau bilakatu zen, gainera, bere lan serioenen argitaleku, *Eskualduna*-n edo *Herria*-n lan xumeagoak eta herritarrak ematen zituen bitartean.

1934eko *Aintzina* hura ez da nahasi behar hurrengo hamarkadan Marc Legasse, A. Ospital eta P. Xarriton-ek kaleratutakoarekin (1942) (12). Aldizkariari eman nahi izan zion ideologia eta pentsamendua azalduta dago elkarrizketetako batean (357-358) eta urte haietan eta Iparraldean kultur aldizkari batek izan zitzakeen gorabehera ekonomikoak ere agerian geratzen dira (353): bi mila irakurle izatera iritsi zen argitalpena (354).

*Herria* da, noski, Lafitte-k berak sortu (1944-azaroa-16an kalera-tua) eta luzaz gidatu zuen aldizkaririk emankorrena (zuzendaritza: 1944-1967). Astekariaren lana 1967tik Hiriart-Urruty eta Larre-ren lankidetzaren hurbilarekin zuzendu zuen. Jasotako nire oharrak gaizki ez badaude, oroitzapenetan aipu bakarra egiten da *Herria*-z, Saint Pierre-k aldizkarian nola jarri zuen gogoratzeko, hain zuzen (491).

(10) Ikus Monier-en liburu honetan ondoko kapituluak: «Apprendre le basque» (157-165), «La Bibliothèque basque» (313-318), «Sauvetage de "Gure Herria"» (319-320), «Les journaux» (349-362), «Mr Léon et les Pastorales» (363-380), «Etudes basques» (447-462), «Origines de l'Euskara» (501-517), «Le Dictionnaire Lhande» (575-581, ik. 164-165), «Mémoires. Dialectes basques et trilinguisme» (583-594), eta «Pierre Lafitte plaque tournante de l'Euskara» (595-613).

(11) Ik. EUSKALTZAINDIA (1983): Aip. lib., 17-24. or., eta berezikiago: GOIKOETXEA, M.I. (1986): «Piarres Lafitte zenaren lanak (Bibliografia)», in: *Euskera*, XXXI, 1986, 87-101. Lan hau *Bulletin du Musée Basque*-n berrargitaratua izan zen: 1986, 189-206, eta berau da oraingoz dugun lan-zerrendarik osoena. Hala ere, kazetala sakabanatua, eta *Herria*-koa bereziki, jaso gabe geratu da.

(12) Ik. LARRE, E. (1983): «Piarres Lafitte kazetalaria» in: EUSKALTZAINDIA (1983): Aip. lib. 27. or.

Aldizkari-lan horietatik at, Lafitte-k bere Gramatika (1944) eta hiztegiez du batez ere oroitzapen mina. Gogoz aipatzen du Lhande-rekin egin zuen adiskidantza eta eskuzabalki eskaini zion lankidetzaz, eta harro dago 1920rainoko euskal Literaturaren irakurketa osotik jasotako hitz-zerrendaz eta gramatika-oharrez (450, 578). Gramatikarako aurre-lana egitean 53 euskal gramatika bildu zituela errepikatzen du (450, 508-509); pozik ageri zaigu Lafitte bere Gramatika hartako lanarekin (449, 455) (13). Baionan emandako hitzaldiak irabazi zion sonari esker bere bizitzako negozio bakarra Gramatikarekin lortu zuela esaten digu: argitalpenaren aurretik bazituen 1.200 harpidedun Iparraldean bakarrik (454) (14).

Lafitte-k azalpen nahiko zabala egiten digu euskal maileguen historiari, bere kezketako bat zen, nonbait (509-514), han-hemenka berritzen baita gaia. Bestalde, euskarak bere euskalkitan banatuta duen hiztegi zabalaren baliagarritasun praktikoaz ez da falta galderarik: bai hiztegiaren eta bai aditzearen mugaren bat jarri beharrean gaude, praktikoa izan nahi badugu (585-588). Egindako bere hiztegiekin ari dela, Lhande-rena ezezik André Tournier kaskoinarekin batera burututako *Lexique Français-Basque*-ri buruz ere bada albisterik (579) (15).

Zalantzarik gabe, bere lanen artean bi ditu estimurik onena zienak: Gramatika eta Iparraldeko euskal Literaturari eskainitako ikerlan-multzoa (eta, bere hitzetan, tamalez, sakabanatuta eta batasuna-osotasun batera ekarri gabe geratu zitzaiona). Horregatik —Lafitte-ren literatur histori sintesia egiteke gelditu delako— obra historiko barreiatu horrek mereziko luke bilduma oso bat egin eta argitara ematea.

Lafitte poeta (16), antzerki-idazlea (565), kazetaria (17), etnografo edo musikazalea (26, 199, 448) ez ditugu arakatuko; baina liburuan hor daude, protagonistak berak alor horiei ematen dien munta aitortuarekin.

## Pertsonaia gogoratuak

Autore baten obra gizarteren batetik eta gizarte jakin batera begira burutu ohi da, eta zer esanik ez, haren bizitza. Lafitte ez da hone-tan salbuespena. Alderantziz, harreman sozial zabaleko gizona izan zen, eta, ondorioz, ez zitzaion falta izan maisugo, lagunarte eta lankidegorik. Oroitzapenetan, pertsonaien galeria ederra topa dezakegu.

(13) (1944): *Grammaire Basque... (Navarro-Labourdin littéraire)* Bayonne: Le Livre (1962<sup>2</sup>, 1979<sup>2</sup>).

(14) Begira *Bulletin* aipatuan Rebuschi-ren lana. Era berean, KRUTWIG, F. (1983): «Piarres Lafitte-ren omenez», in: EUSKALTZAINDIA (1983): Aip. lib., 317-322.

(15) Tournier-en berriak ik.: ONAINDIA, S. (1975): *Euskal Literatura*. IV. *Ogeigarren mendea*, 1910-1935. Bilbao. 422-423. or.

(16) ONAINDIA, S. (1983): «P. Lafitte euskal olerkari», in: EUSKALTZAINDIA (1983): Aip. lib., 811-831.

(17) LARRE, E. (1983): Aip. idazl.

Maite zituen —eta nola, gainera— euskaltzaletu zuten eta euskalgintzan lagundu zuten irakasle eta gidariak. Guztien gainera hiru izen dira gailentzen direnak: Piarres Lhande Hegi (1877-1957), Klement-Josepe Mathieu (1882-1963) eta Jean Saint Pierre (1884-1951).

Lafitte-ren bizitzan gurutzatutako beste hainbat ere hor dabil: elizgizonak, noski (apezpikuak, herrietako erretoreak, irakasle lagunak, etab.), eta euskal kulturako izen ezagunak (Dassance, Jauregiberri, A. Leon, Goihenetxe, Lacombe, etab.). Euskal Herriko politikariei buruz ere bada zerbait: Intxauspe, Ibarnegarai, I. Intxausti, T. Monzon, etab. Eta iragan aldiak izen hurbilak ere ageri dira: Xaho, Hiriari-Urruty, etab. Gutxiena uste genuenean, Roman Jacobson-ekin (1896-1982) topo egiten dugu, nazien pertsegiziotatik ihes zihoan hizkuntzalari poloniar gerora amerikartua (427); eta, euskal lanetan, etxeoago, Gavel ere agertzen zaigu (izenez itxuraldatua bada ere) (18).

Lhande josulaguna eta Mathieu eta Saint Pierre apaiz-apezpikuei egotzen die Lafitte-k bera euskaltzaletu eta gero euskal lanetara bideratu izana. Lhanderekiko mirespina eta haren trajedia pertsonalarekiko tristezia nabariak dira kontalariarengan: maite eta miresten zuen Lhande hizlari irudimentsu eta erreboltari heziezina (agian, kideko bat ikusten zuelako?). Mutikotan ezagutu zuen (140-141), eta artean ikasle zela bidali zizkion lehenengo bere zerrendak (164-165); Tolosan egin zuten elkarrekin topo (167). Sumatzen da nolako gozamenarekin kontatzen dituen Lhande-ren halabeharrezko bidaia eta itzuliak, ikasketa eta kanpainak (Norvegia, Ingalaterra, Amerika, Madagaskar, Parise, India...). Liburuan, berak ere lagundu zuen hiztegiari atalburu oso bat eskaintzen dio Lafitte-k (575).

Saminez beteta gogoratzen du Lafitte-k Lhande-ren ezbarra: hitza eta burua galdu zituen heriotza baino hogeiren bat urte lehenago eta Pauen jesuiten gaixo-etxean mundutik erabat aparte pasa zituen azken urteak (175, 180-181). Benetako ezbarra, gaixoarentzat berarentzat noski, baina baita lagun eta euskaltzaleontzat ere.

Mathieu da, seguraski, errespeto eta mirespinik betearekin oroitzen hauek aipatzen dena: irakasle trebea (222-223), dogma eta ekonomia politikoa ematen zituen (186, 194, 559), eta nabaria da ikasle-irakasle arteko estimua (189, 193). Tolosatik Uztaritzera itzultzean, berriz ere elkarrekin izanen dira Lafitte eta Mathieu (307), eta beronek eraginda ekin zion hezitzaile-lanari (312).

Mathieu-rekin batera oso bihotzekoa izan zuen Lafitte-k Saint Pierre —esan bezala, euskaltzaletu eta euskara lantzeko lehenengo bultzada eta baliabideak eman zizkiona (158-159)—: morala eta erretorika ziren honen irakas-alorrak (160). Gerora, beronek jarriko zuen A. León-ekin harremanetan (363), eta maitekiro azaltzen dizkigu

(18) Lanen transkribaketari ez zaio liburuan bidezkoa zen arretarik jarri. Izen propioan itxuraldakuntza egin da deabrukeriarik. Adibideak gehiegi dira (parentesi artean emango dut forma zuzena): Aroja (Baroja, 372), Chahot (Chaho, Xaho, 142), Domenzin, Domezun (Domezain, Domintxine, 37, 41, 551), Monson (Monzon, 147), Morets (Moret, 448), Gavelle (Gavel, 373, 510, 511), Lingeman (Linschmann, 185), Marquiegy (Markiegi, 341), Schukart (Schuchardt, 185, baina zuzen: 365, 618), Yagoue (Yagüe, 338, 339, 341), etab.

Lafitte-k Saint Pierre-ren apezpikuondoko ezbeharra eta *Herria*-ren sorreran izan zuen lekua (189-491). Saint Pierre eta Mathieu izan ziren Lafitte-k zinezko gotzain adiskide bakarrak (488).

Garrantziko egokieretan bere lekuan egon ziren biok. Mathieu-k Piarres gazteari 22 urte edo zituela bere barrunbea aztertu eta barnekatarsia egin zezala eskatu zion («Le grand tournant»: 217-226) eta, ikusi dugunez, biak hurbildu zitzaizkion Tolosan ikasketak — erabakitakoaren aurka— berraukera zitzaizkan (231-232).

Mathieu-ri beste zerbait ere zor izan zion Lafitte-k eta euskal kulturak: patrikatik jarritako diruarekin hasitako euskal liburutegia. Bere ondasunetatik egin izan zuen hori dena euskatzale hark, Lafitte-ri euskal lanerako aukera berriak sortuz (314-317, 320). Xehetasun bitxi bezala, gogora dezagun jatorriz judua zela Mathieu, Garruzekoa (549).

Eman ditugun ohar hauetan gaien hautapen hertsia bat egin behar izan da: hertsiegia eta batez ere subjektiboegia. Lafitte-k utzi dizkigun argibide eta gogoetek behar dute, noski, azterlan historikoren bat, aipatu dizkigun egokiera eta pertsonaien inguruan argitasun berriak biltzeko ezezik, baita testu hau berau testuinguru zuzen eta osoago batean ulertzeko ere. Beta eta esku hoberik izango al du norbaitek, horretarako.

Bestalde, honelako liburu luzerik irakurtzeko astirik ez dutenei gaia zerbait hurbiltzeko idatzi dira lerro hauek. Eta irakurri beharko lukezentzat deia eginda geratzen da, gainera.

Liburu hau «casette» grabatuen traskribapen-lana da: probetxuzko lan astuna burutu dute Monier eta lankideek. Baina traskribapenak ez du esan nahi, Ahozko Historiak eskatzen duen azterketa eginda geratu denik. XX. mendeko Iparraldeko kulturaren Ahozko Historiarekin jarraitzeko giltzarri berri bat jarrita dago aitoren-bilduma honetan, eta segida emateko, zorionez, ez da falta bizirik dagoen lekuko aberatsik. Beto, ba, elkarrizketatzaile langileak.

Jada, Ahozko Historiaren profesionalen artean grabaketekiko politika jakin bat araututa dago, eta badute urrezko arau bat: ahozko bilketa hauen sinesgarritasun zientifikoa gerorako segurtatu nahi bada, erabat premiazkoa da grabaketak, segurtasun osoarekin ezezik ikertzaileen mundurako bere horretan eta irekita gordetzea. Horregatik, premiazkoa da «casette» horien kopia Erakunde jakinen baten esku uztea: Euskal Museo, Seminario, Apezpikutegi edo Artxiboren batean ikertzaileentzat zabalik alegia, bidezkoa den erabilpen-arauak mugatu ondoren.

Obrari gaien aurkibide analitikoa eta izen-deiturena falta zaizkio. Badakigu hori dena lana dela, baina zerbitzu on bat izanen lirateke egingo balira, zeren liburuak, bestela, argibideen lan-bilaketarako ez baitu erabilgarritasun erosorik izango.

#### 4. AZKEN OHARRAK



Esan bezala, «oroitzapen» hauek Ahozko Historiaren eremua landuz joateko aurrelan bat dira, eta historilariaren eskuetako metodogalbahetik pasa gabe datorren langaia da. Argitalpenaren honen ondoren, beharrezkoa da historilariaren lana. Iparraldeko historia ongi ezagutzen duen norbaitek, argitaraldi honetan ez dauden oharrak egingo balizkio, altxor betea den obra honek irakurlearentzat balio berri eta segurtatua izango luke. Aipatu lan osagarria premiazkoa ikusten dugu, hurrengo pausoak emanez joateko.

Nire berriemate hau langaien aurkezpena bakarrik izan da, eta ez, inondik ere, Iparraldeko lekuko kultural behinenetakoa izan dugun Lafitte-k mereziko lukeen edukinekiko eztabaida. Betor ba, hori ere.